



# 22

## Urtarrilak

# KONTZENTRAZIOA GASTEIZEN 12etan Andra Mari Zuria plazan



Pasa den abenduaren 27an ejertzio israeldarrak Gazaren aurkako bonbardaketak hasi zituen, F-16 hegazkinak, apatxe helikopteroak eta hegazkin automatikoak erabiliz. Urtarrilaren 6 larunbatean lurreko erasoaldia hasi zen, 1967tik lurralde palestinarren aurka egin den eraso handiena. Palestinako herriaren aurkako sarraskiak utzitako emaitza suntsiketa beldurgarria da: hildakoak ehundaka eta zaurituak milaka kontatu daitezke, gehiengo zibil babesgabeak eta, neurri handi batean, umeak. Basakeria sionistak ikastetxeak, fabrikak eta soroak suntsitu ditu, erabateko blokeoaren ondorioz dagoeneko langabeziak eta miseriak beteta dagoen lurralde batean.

Ikasle Sindikatuek, Gazako herri palestinarren aurkako erasoaren aurrean, erabateko gaitzespena adierazi nahi du. Solidario sentitzen gara horrenbeste gazte, horrenbeste langile, horrenbeste ume eta orokorrean biztanleria palestinarren oinaze eta amorruekin.

**BONBARDAKETAREN BEREHALAKO GELDITZEA ETA ISRAELEN ERRETIRATZE MILITARRA ESKATZEN DITUGU. GAZAKO BLOKEOAREN BALDINTZARIK GABEKO ALTXATZEA ETA ZISJORDANIAKO OKUPAZIO ISRAELDARRAREN BUKAERA ESKATZEN DITUGU.**

### INPERIALISMOAREN HIPOKRESIA

Herrialde inperialistetako gobernuek, “demokraziaren” izenean hitz eginez, modu hipokrita batean deitoratu dute sufrimendu palestinarra eta ez dute dudarik izan segituan “bi aldeetako biolentzia” kondenatzeko. Era honetan berdinu egiten dute zapaldua zapaltzailearekin, boroa biktimarekin.

AEBek eman duten erantzuna oso esanguratsua da. Administrazio estatubatuarrak, Israelen eraso militar guztiak babestu dituena hauek diruz laguntzeaz gain, palestinarren aurkako eraso Israelen “autodefentsarako” duen eskubidearekin justifikatu du beste behin. Ezin da aurkitu lotsagabekeria handiagorik. Argudio berak erabili zituzten munduko iritzi publikoaren aurrean Iraken aurkako gerra inperialista justifikatzeko, 200.000 biktima zibil eta bi milioi irakiar errefuxiatu bihurtzea eraginez dagoeneko.

Europako Batasunak ere agerian utzi du, sarraski egun hauetan, erabiltzeko gai den hipokresia guztia. Erabili den indar “gehiegikeriaz” kezatu da, baina ez du behatzik mugitu ejertzito israeldarraren sarraldia eragozteko. Estatu espainiarren kasuan, Zapateroren Gobernuak ez du ezer egin adierazpen diplomatikoez aparte.

### KAPITALISMOEAN ETA OKUPAZIO MILITARPEAN INOIZ EZ DA BAKERIK EGONGO EKIALDE HURBILEAN

Ikasle Sindikatutik babestu egiten ditugu herri palestinarren eta bere erresistentziaren eskubideak inperialismoaren eta sionismoaren aurka. Hala ere, erabat arbuatzen ditugu Hamasen zuzendaritza fundamentalistaren metodoak eta politika. Hamasek ez dauka alternatibarik arazo palestinarrentzat. Bere programa erreazionarioa, integrista eta sektarioa, eta bere atentatu indiskriminatuek biztanleria zibil israeldarraren aurka, langile judutarren aurrean erreazio sionista basatia justifikatzeko bakarrik balio dute.

Programa iraultzaile eta benetan sozialista batek bakarrik eman diezaiok irtenbidea Palestinako herriak eta Ekialde Hurbil osoak sufritzen duen amesgaitzoiari. Militarismoari eta gerrari alternatiba bakarra, inperialismoak ezarritako muga artifizialen gainetik nazionalitate guztietako langileen eta masa zapalduen borroka elkartua da. Erregimen erreazionarioak suntsitzea helburutzat duen borroka izan behar da, Ekialde Hurbileko Federazio Sozialista ezarritik. Modu honetan, langabeziarik eta miseriarik gabeko ekonomia bat garatzeko baldintzak sortuko lirake. Biztanleriaren gehiengoaren kontrol demokratikoan oinarritutako Federazio Sozialistarekin ez legoke lekurik gorroto erligioso eta sektarioentzat, eta Ekialde Hurbileko herriek bizikidetzak baketsu bat lor lezake.

### URTARRILAK 22, IKASLEEN ELKARTASUN JARDUNALDIA HERRI PALESTINARRAREN BORROKAREKIN

Ikasle Sindikatutik dei egiten diegu mundu osoko langile eta gazteei masiboki manifestatzen jarraitzeko bonbardaketen berehalako gelditzea eta okupazio militar israeldarraren amaiera eskatzeko. Borroka hau laguntzeko eta ikasle mugimenduaren babesa emateko kausa palestinarri, dei egiten diegu ikasle guztiei urtarrilaren 22an egingo den HERRI PALESTINARRAREKIN ELKARTASUNA ESTATU MAILAKO JARDUNALDIAN parte hartzeko. Jardunaldi honetan klaseetan paroak antolatzea proposatzen dugu ikastetxe guztietan, batzarrak, ebazpenen botazioak eta kontzentrazioak egin daitezzen Gazako sarraski inperialista salatuz eta ejertzito israeldarraren baldintzarik gabeko erretiratzea eskatuz.

**GAZAKO SARRASKI INPERIALISTA GERATU!  
OKUPAZIO TROPA ISRAELDARRAREN BEREHALAKO ERRETIRATZEA!**